

Konstituzioaren 200. urteurrenaren aurrean

FELIX RODRIGO MORA

IDAZLEA

Berrehun urte beteko dira 2012an Espainiako Erresumako egungo ordena politikoa ezarri zenetik, tirania zitala, menperatzaile-talde guztiz elitista bloke batek hartzen baititu erabaki guztiak.

Ordutik hona, herria ez baina, geroz eta biziago, botere militar, politiko, judizial, funtzionarioal, klerikal, intelektual, mediatiko, teknokratiko eta ekonomikoa dira gobernatzen dutenak. Eskola-liburu gezur-merkeek azaltzen duten bezala askatasunaren eta demokraziaren garaipena izatetik urrun, Cadizko 1821eko martxoaren 19ko Espainiako Monarkiaren Konstituzio Politikoaren aldarrikapenak, Estatuaren garapen guztiz azkarra ekarri zuen berekin, batez ere aparatua militar, ekonomiko-fiskal eta eskoletakoa; haiekin batera heldu zen herri-askatasunen gutxitze zorigaitzokoa.

Horretatik sortu zen diktadura politiko gaitza, egun nozitzen duguna, egunetik egunera hobekitzen ari dena gainera.

Konstituzionalismo liberal eta parlamentaristak herri-klaseen burujabe izateko ahalmenen gainbehera damatikoa ekarri zuten. Klaseok egun eta berealdiko errepresioa nozitu zuten, zeren armen bidez inposatu zen Konstituzioa, haren puntako indarra izanik, izan ere, armada. Espainiar konstituzionalismoak eragin zuen handik harako sarraskia franskimoko eragin zuena baino are latzagoa izan zen, denbora luzeagoz jardun zuena gainera. Horrek inondik inora legitimitatea kentzen dio oraingo erregimenari, azken batean 1978ko Espainiako Konstituzioak arautzen duen diktadurak, 1812ko hartan hartzen baitu sustrai eta bizia.

1812ko Konstituzioak, Estatuako aparatuen handitze beldurgarria ekartzeaz gainera, espainolezko lehen mailako eskola derrigorrezkoa inposatu zuen; industria-iraultza eragin zuen; haren nekazarien herri-erregimena, hots, kontzeju irekia desegin zuen, eta ondasun komunalak eta auzolaguntza sistemak ere akabatzerantz bidean ekarri zituen; berebat, zergak emendatu zituen, kapitalismoa sorrarazi zuen hitz honen zentzu modernoan, eta kapitalismoarekin, esplotaziozko eta degradaziozko soldata-sistema zitala ezarri zuen; berebat, ordena patriarkala inposatu zuen, Frantziako 1804ko Kode Zibil misoginotik kopiatu zuena; Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren askatasunari, historiari, kulturei eta hizkuntzei eraso zien, Kanariak bereziki zanpatuz; berebat, Europaz harako espainiar kolonialismoari jarraipena eman zion.

Konstituzio harekin, eta haren funtsak eraberritu zituzten ondorengoekin, gaurkoa barru dela, kontzientzia askatasuna nola, askatasun politiko eta zibilak ere ezkutatu ziren; aurrera-jauzi izugarria jo zuen Estatuak, ez bakarrik kantitatez, baina, batez ere, kalitatez; ondorioz, gizakiek utzi egin zioten horixe izateari, gizaki, eta lanpeko eta menpeko perfektuak, hau da, azpiko gizaki funtzionalak izatera iritsi ziren.

Horrekin sortu da gure garaietako problema lehena dena agian, hau da, giza esentzia konkretuaren hondamena.

2012ko martxora inguratu ahala, geroz eta zaratsuagoa izango da instituzioetatik eta medioetatik helaraziko diguten zalaparta adoktrinatzailerik eta txorora. Behar da horren aurrean erantzun kritiko irmo bat eman; norbanakoen barru askatasuna bortxatzen duen diktaduraren aurrean, sozietate plural eta asanbleario bat aldarrikatu behar dugu, kontzientzia askatasuna nola, askatasun politiko eta zibilak ere badituena, Estaturik eta kapitalismorik gabe.

Estatuaz gain, Espainiako kapital handia ere ari da mobilizatzen Konstituziopeko diktadura sistemaren alde. Horren erakusgarri da El Corte Ingles multinazionalak bere publizitatean «*La Pepa 2012. Constitucion Española. Cadiz-San Fernando*» logotipoa txertatu izana. Bloke erreakzionario handi bat antolatzen ari da, non patrioiak eta diktaduraren erregimena laguntzen duen ezker instituzionala eskuz esku datozen.

2010ean ekin zion Espainiako Erregeak mendeurrenaren laudatzeari, San Fernandon (Cadiz) «1812ko Konstituzioaren bigarren mendeurrenaren ospakizunetarako partzuergoa» eratu eta gero. Geroztik Cadizko apezpikua edo Jose Tomas toreatzailea bezalako pertsonalitate entzutetsuek bat egin dute ekimenarekin. Laster Espainiako kapital multinazional handiak, armada eta polizia aparatuek, funtzionario handiek, alderdi politikoek, Espainiako Parlamentuak eta haren klon autonomikoez, unibertsitate sistemak, prentsak eta telebistak bat egingo dute, subentzionario intelektualitate eta estetokrazia ahaztu gabe.

Badugu gai inportante honetaz eztabaidatzeko premiarik. Proposamenok egiten ditut:

1. Hausnarketa, lan eta ekintza taldeak eratzea, Konstituziopeko diktadurari egiten diogun kritikaren funtsak finkatzeko, bai eta hura gainditzeko gauza izango den erregimen politikoaren, hots, batzar subiranoen oinarriak xedatzeko ere. Horretarako zerbait lagun dezakete nire liburu biok: *La democracia y el triunfo del Estado* eta *Naturaleza, ruralidad y civilización* (bigarren honetan 1812ko, eta haren ondorengo konstituzioek eraginiko nekazarien herri-sozietatearen suntsipenaz ari naiz).

2. Salaketa ekintzak prestatu eta material kritikoak argitaratzea, geroz eta biziago eta geroz eta irmoago, 2012ko martxora inguratu ahala.

3. Abenduaren 6 oro, hau da, Espainiako Erresuman indarrean dagoen Konstituzioa erreferendum ez-libre bidez inposatu zen egunaren urteurren oro, kritika, gaitzespen eta borroka egun bihurtzea, egungo tirania politikoaren aurka eta askatasunaren alde, zeina sozietate burujabe batean mamitu ahalko den.

Herri-batzar guztiz subiranoen erregimen baten alde, gora askatasuna!